

Arrautze jaurtiketa lehiaketaren irabazleak

2009/05/18

Maiatzaren 14an, Arrasateko campusean, San Pankrazio eguna ospatuz egin zen arrautze lehiaketa arrakastatsuan 38 taldek parte hartu zuten, guztira 175 ikasle eta langile.

Arrautze gordina 15 metroko garaieratik jaurtitzen da kartoi, zoka eta kolaz egindako tramankulu batean. Arrautzea puskatu gabe urrutien jaurtitzen duenak irabazten du, hegaldirik onena egiten duen tramankuluak ere saria jasotzen du eta azkenik, estetika politena duen tramankulua ere saritua izaten da.

Txapeldunak hauek izan ziren:

- Arrautzea urrutien jaurtitzea lortu zutenak Unai Arruti, Pello Bilbao, Unai Pérez, Eihar Astobeitia eta Ibon Goitia izan ziren. Frisbee itxurako tramankuluak 34 metro hegan egitea lortu zuen eta honi esker, lehen saria jaso zuten.
- Hegaldirik ederrena Webó izeneko astigar haziaren itxuradun tramankuluak egin zuen. Haziak zuhaitzetik erortzean egiten duen hegaldia imitatu zuen. Bere egileek, Beñat San Adrian, Aitor Sánchez, Erlaiz Vidal, Ibon Labaien eta Ibai Lazkanok bigarren saria lortu zuten.
- Estetika politena izateagatik Olé izeneko kordobes itxuradun tramankuluak jaso zuen hirugarren saria. Bere egileak, Naia Belloso, Goizane Herrera, Saioa Ardaiz, Araitz Dacosta eta Maria Amenedo izan ziren.

Bejondeizuela!

